BALANTZE SOZIALA 2017

Agintzari
Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social

Zabalduz
Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social

aurkibidea

1 Nor gara
2. orrialdea

2 Gure eredua
7. orrialdea

3 Gardentasun-txostena Agintzari GESK
12. orrialdea

4 Gardentasun-txostena Zabalduz Koop Elk
21. orrialdea

5 Zer egiten dugu
28. orrialdea

6 Konpromisoa gizartearekin
35. orrialdea

Agintzari
Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social

Zabalduz
Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
Cooperativa de Iniciativa Social

1 nor gara



aurkezpena

Balantze Sozial honen 2016ko edizioan geure buruen aurkezpena egiteko singularreko lehen pertsona alde batera utzi genuen arren, berez, Agintzariren 40. urtebetetzeko edizio honetan aipatuko ditugu azkeneko aldiz Agintzari GESK eta Zabalduz GESK Kooperatiben bi proiektu paraleloak, eta aurrerantzean, horrenbestez, proiektu bateratu bakarrari helduko diogu.

2011. urtean Agintzarik hiru ildo estrategiko finkatu zituen: lehena, gure ezagutza eta gure jarduerak ugaritzea, bigarrena, gure presentzia eta eragina areagotzea eta, hirugarrena, hori guztia gure nortasun-ezaugarriekin egitea. Horrek hazkuntza eta lurralde-hedapen nabarmena ekarri badu ere, izan ere, besteak beste, Zabalduz Kooperatiba abian jarri baita, estrategia horri koherentzia eman nahian, 2015. urtearen hasieran SAREA izendatu dugun prozesu bateratua abiarazi dugu.

2016 eta 2017. urteetan kontzeptu hori biribildu egin dugu eta, hala, konfigurazio juridikoa duen egitura baterako oinarriak finkatzea xedetzat duen prozesu bat egin beharra dagoela ondorioztatu dugu. Proposamen honek 2. mailako kooperatiba bat eratzearen inguruan azken gogoeta egiteko, komunikatzeko eta kontrastatzeko urrats bat zabaldu du 2017an.

Nola bistaratzen dugu SAREA?

- Elkarrekin ditugun errealitateen (gaur egun, Agintzari, Zabalduz eta Área-3 dira) **eragile bateratzaile** gisa bistaratzen dugu, eta horri beste batzuk atxikiko zaizkio. Atxikipen askean oinarritua eta **ikuspegi estrategiko bateratu** batez. Lankidetzazko **entitate juridiko** bat osatuz.
- Esparru ideologiko batekin eta balio batzuekin, gizarte-ekimeneko lankidetza-eredu baten abantailekin, dinamika batzuekin eta kudeaketa-eredu batekin bat egitea esan nahi du horrek.
- Komunitatearekin konektatutako gizarte-zerbitzu batzuen alde egingo dugu, **pertsonak ardatz dituena**, hori osatzen duten pertsonen profesionaltasuna balioetsiko duena eta gizarte-premiei erantzunak sortuko dituena. Elkarlanean aritzea autonomoki garatzea baino interesgarriago egingo duena.

historia

Gizarte-bazterkeriaren alorrean, Agintzari kolektiboaren sorrera 1977. urtean kokatu beharko genuke. Agintzari Elkarteak 1983. urtean lortu zuen nortasun juridikoa eta, une horretatik aurrera, jarduera ugari egingo ditu arrisku-egoeran edo babesik gabeko egoeran aurkitzen diren adingabe eta gazteekiko gizarte-salaketaren, ikerketaren eta arretaren alorrean. Garai horretan, Agintzari Elkarteak hainbat Etxe Funtzional sustatu eta kudeatuko ditu eta hainbat Programa Sozioedukatibo garatuko ditu Familia Heziketaren eta Kale Heziketaren alorrean Esku-hartze Komunitarioko Taldeen bitartez.
1991. urtean, Sozietate Kooperatibo bihurtuko da Agintzari, eta enpresa-eredu horretan, bere gizarte-xedearekin bat datorren gizarte eta lan arloko esparru bat topatuko du, kudeaketa demokratikoa eta gizartearekiko Konpromisoa ahalbidetuko dituena. 2000. urtean, Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bihurtuko da, eta horrek esan nahi du ez duela irabazteko asmorik izango, eta Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Entitate izendatuko du.

Agintzariren historiari buruzko kontakizun publikoetan XXI. mendearen hasierako data geratu da azken mugarrien garai gisa. Dena den, zilegi da hazkunde biziko fase bat nabarmentzea mende honetako lehen hamarkadan, eta hala, 2010. urtean 200 langilek osatuko dute entitateko profesionalen plantilla, batez ere garapen komunitarioko programetan lan egingo dutenak, Bizkaiko herrialdean.
Data horretatik aurrera, neurri batean krisiaren testuinguruak eraginda, kooperatiba honek bere jarduera arlo askotara hedatzeko eta lurraldean bere presentzia areagotzeko lan handi bati ekingo dio, Gizarte Ekonomiaren hazkundea xedetzat harturik. Planteamendu honen emaitza gisa, Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba sortuko da (2014), Donostiako UBA Zentroko langileekin elkarlanean. Gure historiako mugarri berri honetatik helduko diogu berriro gure kontakizunari.

eginkizuna

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da eta gizartearekin konprometituta dago gizarte-premiak lantzeko eta balio soziala sortzeko ahaleginean. Komunitatearen garapenean eta Esku-hartze Sozialaren arlo berezian inplikatutako enpresa soziala garen aldetik, proposamen berritzaileak abiarazten eta kalitateko zerbitzuak kudeatzen lan egiten dugu, zailtasunezko egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen gizarte-premiei erantzuteko helburuarekin. Gure eginkizuna, hain zuzen ere, gizarte-lankidetzarekin konprometitutako eta inplikatutako pertsonak oinarritzat dituen proiektu bat garatzea da, eta gure xedea, talde-lanean jardunez, pertsonen, bezeroen, entitate laguntzaileen eta gure ingurunearen gogobetetasuna etengabe bilatuz, gure jarduerak zuzentzen dizkiegun eta zailtasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea, Gizarte Ongizatearen eredu publikoari zilegitasuna ematen laguntzea eta, azken batean, gizarte zuzenago, solidarioago eta bere aniztasunean kohesionatuago bat sustatzea da, elkarlanaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren ikuspegitik.

Gure lankidetza-proiektuak pertsonak ditu oinarri, hainbat arrazoirengatik. Agintzariren antolamenduaren ardatzak autokudeaketa, partaidetza, esperientzia eta bikaintasuna bilatzen duten pertsonen arteko lidergo partekatua dira, kooperatiba osatzen duten pertsonen nola gure zerbitzuak jasotzen dituztenen gogobetetasuna etengabe bilatuz, baita bezero eta kolaboratzaileena eta bere jardueren xede eta hartzaile den komunitate osoarena ere. Gure kudeaketaren giltzarria, beraz, Agintzari Gizarte Ekimeneko S. Koop. osatzen duten pertsona guztiek adostutako Eginkizun, Ikuspegi eta Balio Komunekin bat etorriz jokatzea da.

balioak

Gure eginkizuna eta ikuspegia, besteak beste, gure izateko eta jarduteko era gidatzen eta osatzen duten balio eta printzipio hauetan oinarrituta daude:

- Gure iritziz funtsezko balio nagusia **gizarte-erantzukizuna** da, gizarte-premiak dituzten pertsonei laguntzeko eta bezero, bazkide eta laguntzaileen gogobetetasuna bilatzeko konpromiso eta inplikazio gisa ulertuta.
- Bai erakunde publikoekin eta bai sektoreko eragile sozialekin ere **elkarlanean** aritzearen aldeko apustu irmoa egiten dugu.
- Hainbat **balio etiko** ditugu ardatz, hala nola Konpromisoa, Erantzunkidetasuna, Zuzentasuna eta Elkartasuna, Zintzotasuna, Errespetua, baita gure Kode Etiko Profesionalak berezkoak dituenak ere, bitarteko gisa zein helburu gisa, bai gure barne-jardueretan eta bai kanpokoetan ere.
- Geure egiten dugu **emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna**ren printzipioarekiko konpromisoa, eta berariaz gaitzesten dugu sexuagatiko edozein diskriminazio.
- Kudeaketaren, informazioaren eta komunikazioaren **gardentasuna** ezinbesteko betekizun gisa ulertzen dugu, bai barnera begira eta bai kanpora begira ere.
- Kooperatibak, bai antolamendu gisa eta bai norbanako gisa ere, berez dituen **oinarrizko konpetentziak** proaktiboki sustatzen eta barneratzen ditugu, betiere konpetentzia profesionalik handiena lortzeko helburuarekin.
- Zinez uste dugu aurreko balio horiek guztiek bizirik jarrai dezaketela, hedatzen diren neurrian eta, beraz, **elkarlanaren bidez** elkartasunaren espiritua aplikatuz, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak definitutako eta mugimendu kooperatiboak aitortutako balioen ekarpen bereizgarri gisa.
- Eta bereziki, eta modu erabakigarrian, sistematikoki bilatzen dugu **errentagarritasun ekonomikoa, sozietarioa eta soziala**, eta horri begira, gure jarduerek xede eta helburu sozialari emandako etekin ekonomikoak berrinbertitu egiten ditugu (irabazi asmorik gabe), lan elkartuaren bidez (sozietarioa) pertsonak eta enplegua sustatzen ditugu, eta kapital soziala eta harreman bidezkoa sortzen dugu kohesioa eta justizia soziala bultzatzeko ekarpen gisa.

kolektiboaren osaera eta ezaugarriak

2017an, Agintzari 491 lagunek osatzen zuten, eta horietatik 181 aktibo dauden bazkideak dira (14 bazkide eszedentzian daude) eta 310 langileak dira. Emakumeen ehunekoa, guztira, %75,56 da.

Era berean, esan genezake nahiko kolektibo gaztea garela, %58,45ek baino gehiagok 40 urte baino gutxiago baititu. Heziketa-mailari dagokionez, % 92k unibertsitateko titulazioa dute eta % 8k unibertsitatekoak ez diren ikasketak eginak dituzte.

Kontziliaziorako eta erantzukizun partekaturako neurriak sustatzeko gure politikarekin bat eginez, kontziliazioa sustatzen dugu, jardunbide onetan erreferentzia izaten ahaleginduz. 2017. urtean, langile guztietatik %17,31 laneko bizitza eta bizitza pertsonala kontziliatzeko lanaldi murriztuaren egoeran aurkitzen ziren, eta guztira, 85 pertsona ziren (4 gizon eta 81 emakume).

2017an Agintzariko lanbide-kategoria desberdinetan lan egiten duten pertsonei dagokienez eta, zehazkiago, lidergo hedatuaren kudeaketa-estrategiari dagokionez, langileen %12,83k kudeaketa-erantzukizunen bat betetzen dute zuzendaritzaren edo koordinazioaren eremuan.

Hain zuzen ere, kudeaketa-egituraren barruan, zuzendaritza-kontseiluan 10 zuzendari ditugu (5 gizon eta 5 emakume), erantzukizunak dituzten erdi-mailako teknikariak 32 dira (28 emakume eta 4 gizon) eta erantzukizunak dituzten goi-mailako teknikariak, berriz, 20 (16 emakume eta 4 gizon).

2 gure eredua



barne-heziketa

Pertsonen hobekuntza teknikoaren aldeko konpromisoa, hain zuzen, aldez aurretik planifikatutako **Urteko Heziketa Plan** baten bitartez gauzatzen da, baita gerora sortutako jardueretan parte hartuz ere, hala nola ikastaroak, jardunaldiak, biltzarrak eta abar.
Gure kudeaketa-ereduarekin bat, Barneko Heziketa Plana modu partekatuan diseinatzen da, Kudeaketa Planetik ondorioztatzen diren premiei eta entitatea osatzen duten talde guztiek proposatutako garapen teknikoen beharrei erantzunez.

2017. urtean, Agintzariko pertsonek **51 heziketa-ikastaro** egin dituzte Heziketa Planaren barruan, eta horietan **izena emateko aukera** eduki dute, pertsona bakoitzarentzat aurreikusitako 40 heziketa-orduetara iritsi arte. Ikastaro bakoitzean parte hartu ahal izatea eta horri etekinik handiena atera ahal izatea bermatzeko, ikastaro batzuek zenbait edizio izan dituzte, eta hala, guztira **82 heziketa-talde** antolatu dira, eta batez beste 20 parte-hartzaile izan dira.

Pertsona guztiak kontuan hartuta, **11.210 ordu** eskaini dira, eta horietatik **% 90** Kudeaketa Planak eta/edo Jarduera Taldeek proposatutako hobekuntza teknikoei erantzuteko izan dira. Gainerako **% 10 zeharkako** gaiekin loturik egon dira (berdintasuna, laneko arriskuen prebentzioa eta abar).

Gonbidatutako hizlariak kontu handiz hautatuak dira, kalitate-irizpide egiaztatuak kontuan izanik (sektorean egina duen ibilbidea, argitalpenak, ikerlanak eta abar), eta horrexegatik, nazioan nahiz nazioartean ospe handia duten profesional adituak etortzen zaizkigu beren ezagutzen bidez laguntzera. Gainera, barne-ezagutzak aprobetxatzea eta partekatzea pertsonen aldeko politikaren zati da, eta horrenbestez, zenbait ikastaro Agintzariko pertsonek berek eskaini dituzte, eta hain zuzen ere, heziketa-ordu guztien % 35 izan dira Agintzariko pertsonek eskaini dituztenak.



euskara

Agintzarik euskararen erabilera sustatzeko eta **kooperatibaren kulturan txertatzeko** konpromisoari eusten dio, **Euskara Plana garatuz**. Plan honek funtsezko bi ardatz ditu, eta bi ardatzon helburua, hain zuzen ere, euskara ezagutzea, erabiltzea eta sustatzea da. Plan hori garatzeko funtsezko gakoetako bat Euskara Batzordeak dira, bat Bizkaian eta bestea Gipuzkoan, eta bi batzorde hauek kooperatibaren errealitate desberdinek osatuak daude.

Agintzarik euskararekin duen konpromisoa ezagutzera ematearren, hirugarren sektorearen Behatokiak gidatu duen **"Euskara Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan"** izeneko ikerketa-proiektuan parte hartu du 2017an. Proiektu honek Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialean dagoen "hizkuntza-paisaiari" buruzko azterlan bat egin nahi du, alegia, euskarak horrelako erakundeetan duen erabilera eta presentziari buruzko egoeraren diagnostiko bat, eta halaber, horietan euskara sustatzeko politiken garapen-mailari buruzkoa. Urte osoan barrena, beste sei erakunderekin batera eta haiekin bat eginda parte hartu dugu.

Euskararekiko konpromisoa sustatzeko eta bizirik eusteko lanean jarraitzen dugu, barruko agiriak, jakinarazpenak, webgunea eta abar euskaraz ere egon daitezen ahaleginduz. Gainera, modu natural batean barneratuko da eremu desberdinetan (bileretan eta profesionalen eta sozietatearen eremuetan).

Euskarak Agintzari barruan duen erabilera, presentzia eta kudeaketa hobetzeari begira, Bikain Ziurtagiria erdiesteko Euskalit erakundeak eskaintzen duen heziketa jaso dute kooperatibako bi pertsonak. Bi pertsona horiek Euskalit erakundeko ebaluatzaileen elkartean parte hartzen dute, eta horien etorkizuneko erronka ziurtagiri hori erdiestea izango da.

berdintasuna

2017. urtean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunaren alorrean aurrera egiteko konpromisoari eta lanari eutsi dio Agintzarik, Emakumeen eta Gizonen III. Berdintasun Plana (2015-2017) garatuz, generoaren ikuspegi integral batetik, bai bere estrategian eta bai bere jardueraren kudeaketan ere.

Berdintasun Plan honetan, arlo desberdinetan oinarritutako jarduerak burutzen aritu gara, hala nola pertsonen kudeaketaren alorrean, guk kudeatutako zerbitzuetan eta gure erakundean generoaren ikuspegia aplikatzeko garapen teknikoaren alorrean, edota etengabeko hobekuntzan eta barne mailan nahiz kanpo mailan sentsibilizatzeko eta kontzientziatzeko orduan, eta abar.

Azaroan, Euskalit eta Emakunde erakundeek Kudeaketan Berdintasuna aplikatzeko jardunbide egokiaren aitorpena egin ziguten generoaren perspektiba barneratzearekin loturik urteko plangintzetan gure helburu-zerbitzuak sar daitezela sustatzearren egiten dugun jardueragatik, eta hori dela eta, Kudeaketa Ereduan Berdintasunaren Jardunbide Egokien Bankuan kokatu gaituzte (https://www.euskalit.net/berdintasunbilatzailea/).

2009az geroztik, emakume eta gizonen benetako berdintasuna sustatzearen alde eta berdintasun hori eragozten duten oztopoak ezabatzearen alde erakundeek eta entitateek egindako lanaren aitorpen gisa, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde Laguntzaile gisa Emakundek eskainitako Aitorpenari eusten diogu.

Emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurka dugun konpromisoa eta gizarte-eragina duen eragile gisa betetzen dugun eginkizuna nabarmentzeko xedez, 2017. urtean barne-sentsibilizaziorako jarduera desberdinak egin ditugu:

- Martxoaren 8arekin loturik, Agintzarik genero-berdintasunarekin duen konpromisoa jasotzen duen kartela.
- Martxoaren 8an aurkeztutako bideoan Agintzariko zenbait emakumeren ekarpenak jasotzen dira.
- VOLAR filma partekatzeko topaketa, azaroaren 25eko kanpainaren barruan kokatua. Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko nazioarteko eguna.
- **Indarkeria matxistaren aurkako selfie-lehiaketa.** Lehiaketa berri bat antolatu dugu, izenburu honekin: **Zer sentitzen duzu indarkeria matxisten aurrean?**
- **"Feminismoa, bizitza eta lana ikusteko modu desberdin bat"** goiburutzat duen orri-markatzailea eta sentsibilizaziorako eta gizarte-jarduketetan erabiltzeko film feministen zerrenda.

Beste alde batetik, gizarte-erantzukizuna gauzatzeari buruzko gogoeta-prozesu baten ondorio modura, 2017. urtean parte-hartze nabarmena izan dugu beste erakunde eta elkarte batzuekin hausnarketa bateratua egiteko sare eta gune desberdinetan, esate baterako REAS erakundearen ECOSOLFEM taldearekin ezagutzak, ibilbideak eta proposamenak partekatzeko, horrek aukera eskainiko baitigu Ekonomia Sozial eta Solidarioko erakundeen barruan genero-berdintasunaren alde aurrera egiteko.

2017. urtean, BAI SAREAn parte hartu du Agintzarik, Emakundek bultzaturik; berdintasuna sustatzen duten erakunde eta enpresen sare bat da BAI SAREA, eta horren helburua, erakunde desberdinetan berdintasuna errealitate bihurtzearen aldeko ekimenen eragina areagotzea da.

Urtearen amaierarako III. Berdintasun Planaren ebaluaketa egin dugu, eta **ekintzen exekuzio-maila diseinatutako ekintza guztien % 81ekoa izan da.**

berrikuntza

AURRERABIDE SOZIALA PERTSONEKIN ETA PERTSONENTZAT

Pentsatu eta birpentsatu

Perspektiba berriak, kontzeptu berriak, konstruktu berriak, kultura sortuz.
• 60 profesional baino gehiago bilduko dituen gogoeta-prozesua.

Gizarte-premiak

Gizarte-premiak ikuspegi berrietatik ulertzea eta jorratzea.
• Area 3, gizarte alorrean ekintza eta gogoeta estrategikoa egiteko aktibatzen da.
• Geolokalizazioa eta gizarte-premiak aztertzeko aplikazio teknologiko berriak.

Gizarte-ekonomia

Garapena eta hazkundea: Gizarte-ekonomia gehiago, gizarte-ekintza gehiago, gizarte-ekimen gehiago.
• Trebatu Berria Proiektua.
• SAREA Proiektua.
• Kudeaketa eta partaidetza.
• Komunikazioa eta kultura.

Etorkizuna eraikiz

Konpromisoa erronkei eta estrategia partekatuari begira: Lurraldea, ikuspegia eta balioak.
Bi proiektu:
• Gazteon Sarelan gazteekin. Landalab, landa-eremuetan gizarte arloko arreta eta komunitarioa eskaintzeko.

Kontu-ikuskaritza datuekin

Ezagutzan eta aro digitalean aurrera egitea.
• Aplika Trebatu.
• Aplika Comunitaria.
• Aplika 276.
• Datuak tratatzeko heziketa eskaintzea 150 profesionali.
• Ebaluazioan eta ikerketan inbertsioa egitea.

Lotura eta lankidetza

Bertakoa eta mundu osokoa lotzea, beste batzuekin ikastea eta elkarlanean aritzea.
• Gaztejeunes Euroeskualdeko Proiektua.
• EKIN eskualde arteko proiektua.
• SAREA eskualde arteko proiektua.
• FICE España Plataforma.

Lankidetza-esperientziak

Gizarte-heziketa lankidetzaren eta elkarlanaren balioen bitartez.
• HamiketaKOOP.
• MazaKOOP.
• Trebatu Proiektua

36 proiektu-talde urte osoan aktibo daude

Gogoeta egiteko, ideiak garatzeko, prozesuak hobetzeko, gizarte-premiak, produktu berriak edo zerbitzuak identifikatzeko... lantaldeak dira.

3 gardentasun-txostena Agintzari GESK



gardentasun-txostena 2017 Agintzari

Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Bizkaiko Foru Arauaren aginduak oinarritzat harturik prestatua.

Ondorengo eremuei buruzko informazio garrantzitsua argitaratuko dugu:

- Erakunde arloa.
- Ekonomia eta Finantza arloa.
- Publikoaren arloa.

erakundeari buruzko informazioa

Erakundeari buruzko informazioarekin loturik, txosten honetan jasotzen dira garatzen ditugun eginkizun desberdinak, gobernu-organoaren osaera eta erakundearen organigrama.

izaera eta eginkizunak

Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, irabazi-asmorik ez duena, 1991ean sortua eta Euskadiko kooperatiben erregistroan inskribatua.

Lurralde hauetako gizarte-zerbitzuen erregistroetan inskribatua dago:

- Araba
- Gipuzkoa
- Bizkaia

Halaber, Eusko Jaurlaritzak honela jotzen du:

- Gizarte-interesekoa.
- Herri-onurakoa.

Gizarte-premiak aztertzea da bere eginkizuna. Komunitatearen garapenean eta Esku-hartze Sozialaren arlo berezian inplikatutako enpresa soziala garen aldetik, proposamen berritzaileak abiarazten eta kalitateko zerbitzuak kudeatzen lan egiten dugu, zailtasunezko egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen gizarte-premiei erantzuteko helburuarekin. Gure eginkizuna, hain zuzen ere, gizarte-lankidetzarekin konprometitutako eta inplikatutako pertsonak oinarritzat dituen proiektu bat garatzea da, eta gure xedea, talde-lanean jardunez, pertsonen, bezeroen, entitate laguntzaileen eta gure ingurunearen gogobetetasuna etengabe bilatuz, gure jarduerak zuzentzen dizkiegun eta zailtasun-egoeran aurkitzen diren pertsonen eta kolektiboen bizi-kalitatea hobetzea, Gizarte Ongizatearen eredu publikoari zilegitasuna ematen laguntzea eta, azken batean, gizarte zuzenago, solidarioago eta bere aniztasunean kohesionatuago bat sustatzea da, elkarlanaren, komunikazioaren, askatasunaren eta erantzukizunaren ikuspegitik.

antolamendua

Kooperatiba den aldetik, estatutuek ezarriko dute gure egitura, eta bazkideen batzar nagusia eta zuzendaritza-kontseilua dira bertako gobernu-organoak.

Batzar nagusia da gobernu-organorik gorena.

Konpetentziak:

- Gainerako gizarte-organoetako (ZB, BB...) kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak eta soberakinen banaketa onestea edo galerak egoztea.
- Sozietatearen Estatutuak aldatzea.
- Barne Araudia onestea/aldatzea.
- Sozietatea bat egitea, banantzea, eraldatzea eta desegitea.
- Estatutuekin bat etorriz, ekonomia, antolamendu edo eginkizun arloan kooperatibak duen egituraren funtsezko aldaketa bat eragiten duen edozein erabaki.

zuzendaritza kontseilua

Kudeaketarako eta ordezkaritzarako organoa:

KARGUA	IZENA	AGINTALDIA
Lehendakaria	Eva Alkorta Bedialauneta	2018
Lehendakariordea	Josune Lorente Urkiaga	2018
Idazkaria	Iratxe Amantegi Vegas	2018
Bokala	Gotzone Garate Arruabarrena	2018
Bokala	Aintzane Arteagabeitia Saratxo	2020
Bokala	Rosa Isabel Garai Juez	2020
Bokala	Teresa Aguirre Urkijo	2020

erakundearen organigrama



kontu-ikuskaritza eta kontrol-sistemak 2017

- Kontu-ikuskaritza, irabazi-asmorik gabeko erakundeen parametroak betetzen ote dituen egiaztatzeko, REAS erakundeak egina.
- Kalitatearen Kudeaketa Sistemari buruzko kontu-ikuskaritza, araua: ISO9001:2015, Lloyd's Register Quality Assurance Limited erakundeak egina.
- Ekonomia eta Kontabilitate arloko kontu-ikuskaritza, BNFIX auditores erakundeak egina.
- DBLOaren segurtasun-sistemari buruzko kontu-ikuskaritza, PKF – ATTEST erakundeak egina. 3.
- Berdintasun Plana ezarria.
- Arriskuen prebentziorako Komitea.
- Compliance Plana ezarria.

kudeaketa publikoari buruzko informazioa

2017 baino lehenago lehiaketa bidez esleituak · 2017an lehiaketa bidez esleituak · Kontratu txiki bidez esleituak · Hitzarmen bidez esleituak

LEHEN ARRETAKO ZERBITZUAK

Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean Esku Hartzeko Zerbitzua (1.3.)

• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Barakaldo	Barakaldoko Udala
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	Barakaldoko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan, arlo psikosozialean eta gizarte-eskola arloan esku hartzeko zerbitzua	Basauriko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Berriz	Berrizko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Irala-San Adrian/Rekalde-Peñaskal (A.B.E.E.)	Bilboko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Otxarkoaga-Txurdinaga /Santutxu-Bolueta (A.B.E.E.)	Bilboko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Uribarri-Zurbaran/Indautxu Erdialdea	Bilboko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko Zerbitzua Zorroza/Basurtu-Altamira (A.B.E.E.)	Bilboko Udala
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Bilbo.	Bilboko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Galdakao	Galdakaoko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Getxo	Getxoko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (erdi irekia) Eibar	Eibarko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Ermua	Ermuko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Etxebarri	Etxebarriko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Leioa	Leioako Udala
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Leioa	Leioako Udala
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Muskiz	Muskizko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Orozko	Orozkoko Udala
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Orozko	Orozkoko Udala

• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Portugalete	Portugaleteko Udala
• Gizarte eta Hezkuntza Arloan eta Arlo Psikosozialean Esku Hartzeko Zerbitzua Santurtzi	Santurtziko Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Trapaga	Trapagako Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Ugao eta beste batzuk	Ugaoko Udalaeta beste batzuk
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Urduña	Urduñako Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Zierbena	Zierbenako Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Busturialdea	Busturialdeko Mankomunitatea
• Gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua Durangaldea	Durangaldeko Mer. Mankomunitatea
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua Enkarterria	Enkarterriko Mankomunitatea
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua	Lea-Artibaiko Mankomunitatea
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	Lea-Artibaiko Mankomunitatea
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua	Lea-Ibarrako Mankomunitatea
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua	Bermeoko Patronatua
• Arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua	Bermeoko Patronatua
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (arreta kasuen arabera)	Mendaro eta Elgoibako Udala
• Gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua	Zaratamoko Udala

Zaintzaileei (1.4.) eta kidekoei laguntzeko zerbitzua

• Arlo psikosozialean laguntzeko zerbitzua eta atseden-espazioak	Santurtziko Udala

Etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-etxebizitza (1.9.1.)

• Etxeko indarkeriaren biktima izan diren emakumeekin gizarte arloan esku hartzeko Programari gizarte-hezkuntza arloan laguntzeko Zerbitzua eta programari atxikitako	Bilboko Udala

Zorroan sartu ez diren beste zerbitzu batzuk

• Bilbon eskolako absentismoa hautemateko, prebentzioa egiteko eta arreta eskaintzeko zerbitzua	Bilboko Udala
• Ludoteka eta Gaztelekua	Mendaroko Udala
• Zerbitzu soziokomunitarioa	Oiartzungo Udala

BIGARREN ARRETAKO ZERBITZUAK

Adingabeentzako Etxebizitza Zentroak (2.4.4.)

• Harrera espezializaturako Etxebizitza Zentroa IRISASI	Gipuzkoako Foru Aldundia
• Harrera espezializaturako Etxebizitza Zentroa URALDE	Gipuzkoako Foru Aldundia
• BOTIOLA ETXEA Etxebizitza Zentroa	Bizkaiko Foru Aldundia
• ARABELLA Etxebizitza Zentroa	Bizkaiko Foru Aldundia

Familiarekin gizarte-hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko Zerbitzuak (2.7.3.1.)

• Haurrekin, nerabeekin eta beren familiekin gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzua (TREBATU)	Gipuzkoako Foru Aldundia
• Sexu-gehiegikeriazko egoeretan esku hartzeko zerbitzua (SEIP)	Bizkaiko Foru Aldundia
• Sexu-gehiegikeriazko egoeretan esku hartzeko zerbitzua (ASASI)	Gasteizko Udala

Familia-harrera sustatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak (2.7.6.1.)

• Familia-harrerarako zerbitzua Bikaia (F.H.S.T.)	Bizkaiko Foru Aldundia

Adopzioa sustatzeko eta teknikoki laguntzeko Zerbitzuak (2.7.6.2.)

• Adopzioa sustatzeko zerbitzua Bizkaia (BALS)	Bizkaiko Foru Aldundia

Babesik gabeko egoeran dauden haur eta nerabeentzako gizarte-informaziorako Zerbitzua (2.7.1.1.)

• Haurrei eta nerabeei telefono bidez arreta egiteko zerbitzua (ZEUK ESAN)	Eusko Jaurlaritza

Sexuagatiko etxeko Indarkeriaren biktima diren emakumeentzak informazio eta arreta Zerbitzua (2.7.1.2.)

• Indarkeriaren biktima diren emakumeei telefono bidez arreta egiteko zerbitzua (SATEVI)	Eusko Jaurlaritza

jasotako diru-laguntzak

DIRU-LAGUNTZEN LINEAREN IZENA	DEIALDI-EGILEA	PROIEKTUA	EMAKIDAREN DATA	EMANDAKO ZENBATEKOA
Barakaldoko udalerriko gizarte-premien mapari buruzko azterketa.	Barakaldoko Udala	Barakaldoko gizarte-premien inguruko azterketa.	2017-12-21	60.000,00
Gizarte arloan esku hartzeko ezagutza kudeatuko duten jardueren eskabideak.	Eusko Jaurlaritza	Gurasoek seme-alaben aurka egindako indarkeriarekin loturiko faktoreak Ezagutzeko eta Ikertzeko Proiekturako kudeaketa-laguntzak.	2017-12-18	15.878,00
Gipuzkoan pertsonak eta enpresa parte-hartzaileak sustatzea.	Gipuzkoako Foru Aldundia	TREBATU BERRIA. Eraginkortasuna areagotuz partehartzea sakontzearen bidez.	2017-12-13	48.644,31
Espetxean nahiz preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuetarako diru-laguntzak 2017.	Eusko Jaurlaritza	Euskadiko Autonomia Erkidegoan espetxean nahiz preso dauden pertsonak gizarteratzeko eta laneratzeko proiektuak; HITZUNE.	2017-11-6	7.192,00
Haurrak eta nerabeei arreta egin eta gizarteratzen lagunduko dieten jarduerak egiteko diru-laguntzak.	Bizkaiko Foru Aldundia	OPPORTUNITY. Lehen lan-esperientziak.	2017-10-20	10.868,50
Pertsonekin, familiekin, taldeekin eta komunitateekin gizarteratze-jarduerak egiteko diru-laguntza.	Eusko Jaurlaritza	ETXEAK SAREAN.	2017-10-3	38.613,00
Akitania Berria Euskadi Nafarroa Proiektuak.	Euskadi-Akitania-Nafarroa euroesk.	GAZTEJEUNES. Mugaz gaindiko ekosistema baterantz gazteriaren gizarte-zerbitzuetan. Ikaskuntza eta esperientzia partekatuak eta berrikuntza harrera arloan.	2017-7-20	23.940,00
"Etorkizuna Eraikiz" Gipuzkoa Lab. programarako diru-laguntzak.	Gipuzkoako Foru Aldundia	LANDALAB. Landa-eremuan Gizarte arloan Esku Hartze Goiztiarra egiteko Baliabide Komunitarioak Koordinatzeko eredu-pilotuak garatzea. Irtenbide berritzaileak, errepikagarriak eta kostu-eraginkorrak gizarte-erronka berrietarako.	2017-5-22	41.165,00
2017-2018 ikasturtean Prest Gara irakasleen etengabeko Heziketa Planaren garapenerako proiektuen aurkezpena.	Eusko Jaurlaritza	PREST GARA 2.1 BLOKEA	2017-4-24	4.300,00
2017-2018 ikasturtean Prest Gara irakasleen etengabeko Heziketa Planaren garapenerako proiektuen aurkezpena.	Eusko Jaurlaritza	PREST GARA 2.2 BLOKEA	2017-4-24	4.300,00
Euskararen erabilera sustatzeko planak idazteko diru-laguntza 2017.	Bizkaiko Foru Aldundia	2017- Euskara Sustatzeko Planak.	2017-1-31	7.241,00
Kultura eta Hizkuntza Politikako Saila.	Eusko Jaurlaritza	LAN HITZ 2017.	2017-12-29	19.767,00
EAEko enpresek burutu beharreko heziketa-ekintza estrategikoak finantzatzeko laguntzak.	Eusko Jaurlaritza	HOBETUZ 2017.	2017-12-29	14.222,19

lankidetza-hitzarmenak erakundeekin

JARDUERA	ONARTUA	ERAKUNDEA	IRAUPENA
Bestelakoak	40.000 €	Gizarte Ekintza Kutxabank	Urtebete

(*) Kutxabank gizarte-ekintzak 3 proiektutan lagundu du: 20.000 €rekin "sarean konektatutako etxeak" proiektuan, 15.000 €rekin "Trebatuz, gizarteratzeko zubiak eraikiz" proiektuan, eta "Helduaro aktiboa, zahartze osasungarria sustatzeko aukera bat" proiektuan.

ekonomia eta finantza arloko informazioa

Gure erakundearen ekonomia nahiz finantza arloko informazioari dagokionez, hauxe azpimarratu behar da:
Agintzari Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, eta horrek esan nahi du ez duela irabazi-asmorik eta bere mozkin guztiak erakundearen sozietate-helburuetan berrinbertitzen dituela.

Zerbitzuen eskaintza

2017. urtean Agintzarik egindako prestazioen bolumenak azken urteotako hazkunde-joera berari eutsi dio, eta hala, gero eta programa gehiago eta intentsitate handiagoz egin ditu. Aurten, esate baterako, 17.094.882 euroko bolumena erdietsi du, eta aldiz, joan den urtean 16.021.022 euro izan ziren, eta gainera, ezarpen nabarmena lortu du Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurraldeetan.



diru-sarreren banaketa

Diru-sarreren banaketa azaltzeko, jardueraren balio erantsiari buruzko analisi-eredura joko dugu.
Balio Erantsiaren analisiaren eskeman azaltzen diren datuak ohiko ustiapen-kontutik datoz, baina beste irizpide batzuk kontuan hartuta konfiguratu dira eta beste modu batera antolatu dira, erakundeak duen eginkizunaren kudeaketaren beste ikuspegi bat eskaini ahal izateko, eta hain zuzen ere, irabazi-asmorik ez izatea da horren bereizgarria. Era horretan, sorkuntza eta banaketa aldetik duen balioa ematen zaio erakundeak sortutako aberastasunaren komunitateari.
Sortutako aberastasun gehiena hori sortzen gehien lagundu duten eragileen artean birbanatzen da. Eta alde horretatik, lortutako diru-sarreretatik gehienak proiektuan parte hartzen duten pertsonen (bazkideen eta langileen) laneko soldatak eta aurrerakinak estaltzeko erabiltzen da. Laneko soldaten eta aurrerakinen kostu horretatik % 40 inguru zergen eta sozietate-kargen bidez gauzatzen da, eta hala, komunitateari itzultzen zaio aberastasun hori.
Diru-sarreren beste parte garrantzitsu bat kontsumoaren, ekoizpenaren eta zerbitzu-azpiegituren kostuak estaltzeko erabiltzen da.
Azkenik, diru-sarreren parte bat enpresan bertan atxikita geratu da, soberakin gisa, entitateak beharrezkoa duen finantza-oreka bermatzeko.

Soberakin horrek kooperatiban atxikitako aberastasuna adierazten du, eta hurrengo ekitaldietako hobekuntzen eta ekimenen finantzaketari aurre egiteko edo izan ditzakegun galerak estali ahal izateko erabiliko da.
Gizarte Ekimeneko Kooperatibetan, mozkin ekonomikoak ez dira bazkideen artean banatzen edo banaketa mugatua izaten dute mutualitate-kontzeptu zabalago baten eraginez, emaitzak sozietatearen xede eta helburuan inbertitzen baitira berriro.
Alde horretatik, Agintzarik urtero dituen soberakin horietatik % 70 xedatzen du zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko eta gizarte-ekintza propioa sustatu eta finantzatzeko, baita komunitatearen onurarako ere, eta % 10 bat bazkideen eta langileen heziketarako eta kooperatiben arteko lankidetza sustatzeko, eta % 20, legeak hala agintzen duelako, erakundearen beharrezko finantza-egonkortasuna bermatzeko.

BALIO ERANTSIA



- Laneko ordainsariak
- B. Kostuak-Ekoizpen eta kudeaketako kontsumoak
- Azpiegitura-kostuak
- Amortizazioak
- Soberakina
- Aplikatutako Fondoak
- D. Kostuak / Finantza-sarrerak eta ezohiko zergak

FONDOEN XEDEA

I: SOZIETATEAREN JARDUERA ETA XEDEA:

- Titulartasun propioko gizarte-ekintzako proiektu berriak diseinatu, ikertu, gidatu eta abian jartzeko inbertsioak egitea.
- Gaur egungo zerbitzuak osatuko dituzten ekintza pilotuen finantzaketa osagarria bilatzea, herri-administrazioarekin lankidetzan.
- Erakundeak edo erakundetik kanpoko besteren batek komunitatearen mesederako sustatutako ekintzak babestea eta finantzatzea.

II: ZEHARKAKO PROIEKTUAK

- Zeharkako ekintzak, lankidetza eta, oro har, bestelako barne-ekintza batzuk finantzatzea.

III: GARAPEN KOOPERATIBOA

- Heziketa eta sustapen kooperatiboa bultzatzeko ekintzak finantzatzea.

Egindako txostena: 2018ko apirilaren 20an
Txostena egin duen pertsona: Ramón Sáez. Finantza Zuzendaria
Harremanetarako: departamentofinanciero@agintzari.com

4 gardentasun-txostena Zabalduz



gardentasun-txostena Zabalduz 2017

Ondorengo eremuei buruzko informazio garrantzitsua argitaratuko dugu:

- Erakunde arloa.
- Ekonomia eta Finantza arloa.
- Kudeaketa Publikoaren arloa.

erakundeari buruzko informazioa

Erakundeari buruzko informazioarekin loturik, txosten honetan jasotzen dira garatzen ditugun eginkizun desberdinak, gobernu-organoaren osaera eta erakundearen organigrama.

izaera eta eginkizunak

Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, irabazi-asmorik ez duena, 1994an sortua eta Euskadiko kooperatiben erregistroan inskribatua.

Herrialde hauetako gizarte-zerbitzuen erregistroetan inskribatua dago:

- Araba
- Gipuzkoa

Sozietatearen helburua esku-hartze sozialaren ereduan eta gizartean bertan aldaketa bat sustatzea da, pertsonaren errespetua, ongizatea eta bizi-kalitatea bilatuz, betiere jarduera ekologikoa, iraunkorra, gardena, hurbila eta diharduen komunitatearekin lotua sustatuz, eragile publiko desberdinekin eta antolatutako gizarte zibilarekin elkarlanean, eta bere jarduera, hain zuzen ere, kooperatibaren estatutuetan islatutako sozietate-helburu hori garatzea da.

antolamendua

Kooperatiba den aldetik, estatutuek ezarriko dute horren egitura, eta bazkideen batzar nagusia eta zuzendaritza-kontseilua dira bertako gobernu-organoak.

Batzar nagusia da gobernu-organorik gorena.

Konpetentziak:

- Gainerako gizarte-organoetako (ZB, BB...) kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- Kudeaketa soziala aztertzea, urteko kontuak eta soberakinen banaketa onestea edo galerak egoztea.
- Sozietatearen Estatutuak aldatzea.
- Barne Araudia onestea/aldatzea.
- Sozietatea bat egitea, banantzea, eraldatzea eta desegitea.
- Estatutuekin bat etorriz, kooperatibak ekonomia, antolamendu edo eginkizun arloan duen egituraren funtsezko aldaketa bat eragiten duen edozein erabaki.

zuzendaritza-kontseilua

Kudeaketarako eta ordezkaritzarako organoa:

KARGUA	IZENA	AGINTALDIA
Lehendakaria	Gaizka Larrañaga	2019
Lehendakariordea	Maite Txurruka	2021
Idazkaria	Isabel De Pablo	2021
Bokala	Ainhoa Solozabal	2019
Bokala	Ramón Sáez	2019

erakundearen organigrama



kudeaketa publikoari buruzko informazioa

Erakundeak Herri Administrazioekin dituen harremanei buruzko informazioari dagokionez, kontratuei eta hitzarmenei buruzkoak argitaratuko ditugu jarraian.

Kontratuak

Gurekin administrazio-kontratuak egin dituzten herri-administrazioen zerrenda:

Jarraian zehazten dira Zabalduz Koop. Elkarteak 2017an egindako programak.

• **Gizarte-babesik gabeko egoeran dauden adingabeentzat UBA etxebizitza-harrerarako zentroa erabiltzeko eta kudeatzeko proiektua,** Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuarentzat, 2014. urteaz geroztik kudeatua.

• **Proiektu Teknikoa – Familia Harrerarako Programa**, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizateko Foru Erakundearentzat, 2017. urteaz geroztik kudeatua.

Biak lehiaketa bidez esleituak, bigarrena 2017an.

LEHEN ARRETAKO ZERBITZUAK

Adingabeentzako Etxebizitza Zentroak (2.4.4.)

• Larrialdiko Harrerarako etxebizitza-zentroa (UBA)	Gipuzkoako Foru Aldundia

Familia-harrera sustatzeko eta laguntza teknikoa emateko zerbitzuak (2.7.6.1.)

• Familia-harrerarako zerbitzua Araba (A.F.H.L.S.)	Arabako Foru Aldundia

ekonomia eta finantza arloko informazioa

Gure erakundearen ekonomia nahiz finantza arloko informazioari dagokionez, hauxe azpimarratu behar da:
Zabalduz Gizarte Ekimeneko Kooperatiba bat da, eta horrek esan nahi du ez duela irabazi-asmorik eta bere mozkin guztiak erakundearen sozietate-helburuetan berrinbertitzen dituela.

Zerbitzuen eskaintza
2017. urtean, prestazioen bolumenak azken urteotako hazkunde-joera berari eutsi dio, eta hala, gero eta programa gehiago eta intentsitate handiagoz egin ditu.
Aurten 2.597.593 €ko bolumenera iritsi da, joan den urtean 2.164.593 €koa izan ondoren.



herri-administrazioetatik jasotako diru-laguntzak

DIRU-LAGUNTZA LINEAREN IZENA	DEIALDI-EGILEA	PROIEKTUA	EMAKIDAREN DATA	EMANDAKO ZENBATEKOA
Ezagutzaren kudeaketarako jardue-ra-eskabideak esku-hartze sozialerako.	Eusko Jaurlaritza	Ezagutza kudeatzeko laguntzak; Pentsagune - Ikuspegi berritzaileak nerabeentzat eta administrazio-zaintza.	2017-12-18	9.244,00 €

diru-sarreren banaketa

Diru-sarreren banaketa azaltzeko, jardueraren balio erantsiari buruzko analisi-eredura joko dugu.

Balio Erantsiaren analisiaren eskeman azaltzen diren datuak ohiko ustiapen-kontutik datoz, baina beste irizpide batzuk kontuan hartuta konfiguratu dira eta beste modu batera antolatu dira, erakundeak duen eginkizunaren kudeaketaren beste ikuspegi bat eskaini ahal izateko, eta hain zuzen ere, irabazi-asmorik ez izatea da horren bereizgarria. Era horretan, erakundeak sortu duen eta komunitatearen mesederako banatu duen aberastasunari balio bat ematen zaio.

Sortutako aberastasun gehiena hori sortzen gehien lagundu duten eragileen artean birbanatzen da. Eta alde horretatik, lortutako diru-sarreretatik gehienak proiektuan parte hartzen duten pertsonen (bazkideen eta langileen) laneko soldatak eta aurrerakinak estaltzeko erabiltzen da. Laneko soldaten eta aurrerakinen kostu horretatik % 40 inguru zergen eta sozietate-kargen bidez gauzatzen da, eta hala, komunitateari itzultzen zaio aberastasun hori.

Diru-sarreren beste parte garrantzitsu bat kontsumoaren, ekoizpenaren eta zerbitzu-azpiegituren kostuak estaltzeko erabiltzen da.

Azkenik, diru-sarreren parte bat enpresan bertan atxikita geratzen da, soberakin gisa.

Erakundeak beharrezkoa duen finantza-oreka bermatu ahal izateko.

Soberakin horrek kooperatiban atxikitako aberastasuna adierazten du, eta hurrengo ekitaldietako hobekuntzen eta ekimenen finantzaketari aurre egiteko edo izan ditzakegun galerak estali ahal izateko erabiliko da.

Gizarte Ekimeneko Kooperatibetan, mozkin ekonomikoak ez dira bazkideen artean banatzen edo banaketa mugatua izaten dute mutualitate-kontzeptu zabalago baten eraginez, emaitzak sozietatearen xede eta helburuan inbertitzen baitira berriro.

Alde horretatik, Agintzarik urtero dituen soberakin horietatik % 70 xedatzen du zerbitzuen kalitatea etengabe hobetzeko eta gizarte-ekintza propioa sustatu eta finantzatzeko, baita komunitatearen onurarako ere, eta % 10 bat bazkideen eta langileen heziketarako eta kooperatiben arteko lankidetza sustatzeko, eta % 20, legeak hala agintzen duelako, erakundearen beharrezko finantza-egonkortasuna bermatzeko.

BALIO ERANTSIA



- Laneko ordainsariak
- B. Kostuak-Ekoizpen eta kudeaketako kontsumoak
- Azpiegitura-kostuak
- Soberakina
- Amortizazioak
- Aplikatutako Fondoak
- D. Kostuak / Finantza-sarrerak eta ezohiko zergak

FONDOEN XEDEA

I: SOZIETATEAREN JARDUERA ETA XEDEA:

- Titulartasun propioko gizarte-ekintzako proiektu berriak diseinatu, ikertu, gidatu eta abian jartzeko inbertsioak egitea.
- Gaur egungo zerbitzuak osatuko dituzten ekintza pilotuen finantzaketa osagarria bilatzea, herri-administrazioarekin lankidetzan.
- Erakundeak edo erakundetik kanpoko besteren batek komunitatearen mesederako sustatutako ekintzak babestea eta finantzatzea.

II : ZEHARKAKO PROIEKTUAK

- Zeharkako ekintzak, lankidetza eta, oro har, bestelako barne-ekintza batzuk finantzatzea.

III : GARAPEN KOOPERATIBOA

- Heziketa eta sustapen kooperatiboa bultzatzeko ekintzak finantzatzea.

Egindako txostena: 2018ko apirilaren 20an
Txostena egin duen pertsona: Ramón Sáez. Finantza Zuzendaria
Harremanetarako: departamentofinanciero@agintzari.com

5 zer egiten dugu



Ian-eremuak

MAILA KOMUNITARIOA (LEHEN MAILA)	
Dimentsioa	35 zerbitzu 25 udal eta mankomunitaterentzat
Eragina	13.316 esku-hartze

BIGARREN MAILA	
Dimentsioa	11 zerbitzu hiru LHetan
Eragina	5.571 esku-hartze

EKIMEN PRIBATUA	
Dimentsioa	3 zerbitzu
Eragina	4.636 esku-hartze

SEKTOREAK	
Gizarte Zerbitzuak	35 lehen mailako + 11 bigarren mailako
Hezkuntza	Harremanak +50 ikastetxerekin / + 15 Adineko Zentrorekin
Osasuna	Harremanak +60 zentro anbulatoriorekin
Buru Osasuna	Harremanak buru-osasuneko +15 zentrorekin

Agintzari CIS-EGK-Zabalduz
3. Eremua

	Haurrak eta Familia	Genero indarkeria	Adinekoak	Hezkuntza eta aisialdi hezitzailea	Aholkularitza eta Heziketa
Lehen Maila Komunitarioa	**Gizarte-hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko zerbitzuak** Zaurgarritasun arin eta apalean arreta eskaintzeko zerbitzuak (EISE/SAT) 35 zerbitzu	**Gizarte-hezkuntza arloko Zerbitzuak** Genero Indarkeriaren aurkako Gizarte Jarduketarako Programa	**Hautematea eta Esku Hartzea** LandaLAB eta HiriLAB Gizarte Teknologiaren Landa / Hiri eredua **Zerbitzu Psikosozialak** Udal Zerbitzu Psikosoziala Zaurgarritasuna	**Gizarte-hezkuntza arloko eta arlo psikosozialeko zerbitzuak** Ikastetxe Arruntaren Osagarri diren Gizarte-hezkuntza arloko Zerbitzuak (6-16 urte)	**Ikerketa eta Aholkularitza Soziala**
Bigarren Maila Espezializatua	**Egoitza Zerbitzuak eta larrialdiko harrera** •Larrialdiko Harrera •Egoitza Harrera Espezializatua •Sarean Konektatutako Etxeak **Familiako Adopzioa eta Harrera Sustatzea** •Sarean Konektatutako Etxeak • Adopziorako Laguntza Teknikoa • Harrerarako Laguntza Teknikoa **Laguntza Ildoak** Zeuk Esan Adingabearen Europako Telefonoa 116111 **Abusua eta Babesgabetasuna** • Adingabeen Sexu Abusua • Abandonua • Arduragabekeria	**Egoitza Zerbitzuak** • Udal Etxebizitzen Sareak • Genero Indarkeriaren Biktima diren Emakumeei arreta egitea. **Laguntza Ildoak** SATEVI–Emakumeen aurkako Indarkeriaren Arreta Zerbitzua **Tratu txarren emaileen tratamendua** Tratu txarren emaileak errehabilitatzeko Programa Psikosoziala		**Familiako Adopzioa eta Harrera Sustatzea** Eskolako Laguntza Teknikoa	**Europako Proiektuak** **Gizarte arloan Esku Hartzeko Profesionalak** **Hezkuntzako Profesionalak** **(Gizarte eta) Osasun arloko Profesionalak** **Familiak eta komunitateak**
Lehen Maila Beste era bateko zerbitzuak	**Beste zerbitzu batzuk** • Ludoteka Gizarte eta osasun arloa Gurasotasuna • GazteOn SareLAN 18-23		**Beste zerbitzu batzuk** • Zaintzailearen laguntza • Zahartze Aktiboa • Auton Pertsonala	**Beste zerbitzu batzuk** • Zaintzailearen laguntza • Zahartze Aktiboa • Auton Pertsonala	**ApliKa sistemak ®** **Inpaktuaren neurketa**

Laguntza Teknikoa eta Administratiboa

Kontu-Ikuskaritza: Energía & Iraunkortasuna; LOPD; Etikoa&Soziala; Kalitatea; Finantza arloa

Sozietate Arloa: Berdintasun Ziurtagiria; Sareko Lana; Heziketa

LABEAN. Berrikuntza Unitatea eta Proiektuen Inkubagailua

Erkidegoko Zerbitzua

Aldundiko Zerbitzua

Udaleko Zerbitzua

zerbitzu publikoetan artatutako biztanleak Zabalduz eta Agintzari



LEHEN EREMUA EDO UDAL EREMUA	
Emakumeak	3.179
Gizonak	1.844
Neskak eta nerabeak	3.841
Mutilak eta nerabeak	5.006
	13.870

BIGARREN EREMUA	
Emakumeak	3.497
Gizonak	1.225
Neskak eta nerabeak	701
Mutilak eta nerabeak	1.433
	6.856

KOMUNITATEARI IREKITA DAGOEN ESKU-HARTZEA

Sentsibilizazio-ekintzak, parte-hartzea, ikastetxeekin elkarlanean aritzea, gurasotasun positiboa, sektore arteko mahaiak, eta abar.

Emakumeak	1.189
Gizonak	261
Neskak eta nerabeak	1.595
Mutilak eta nerabeak	2.148
	5.193

	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	EAE
Emakumeak	189	4.315	386	1.786
Gizonak	130	2.390	265	284
Neskak eta nerabeak	73	4.017	326	126
Mutilak eta nerabeak	76	3.162	1.088	123
	468	**15.884**	**2.065**	**2.319**

gure kabuz

Agintzari Gure Kabuz premia gisa sortu da. Zerbitzu publikoak eskaintzetik haratago doan "jardunbide" bat indartzeko eta garatzeko premia gisa. Agintzari GK berrikuntza da, metodologia espezializatua da, garapen tekniko eta profesionala da eta, batez ere, Agintzari GK pertsonak dira. Beren ezagutzak beste pertsona batzuei eskaintzen dizkieten pertsonak dira, garapen tekniko berritzailerako eremu bat sortuz, eta Agintzariko profesionalek ere erronka berriak garatu ditzakete, egunero burutzen duten jardueraz gain. Agintzari GK lagundu egiten du, eremu pribatuko formulen bitartez, Agintzarik bere gizarte-eginkizuna bete dezan, gizarte-premiei proposamen berritzaileen bidez erantzunez, eta pertsonengan oinarritutako erakunde-eredu baten bitartez. Agintzari GK barruan jarduera-ildo oso dinamikoa, oso bizia topatzen dugu, abiadura handian aldatzen ari diren gizarte-premietara eta garapen-aukeretara etengabe moldatzen dena.

2017ko zerbitzu berritzaileenak

GazteON SareLan, hain zuzen ere, zailtasun pertsonalak, familiakoak edo gizarte arlokoak dituzten gazteak helduarora igarotzeko laguntza-programa bat da, 16 eta 23 urteko gazteei zuzendua. Horren helburua lurraldean emantzipaziorako arreta-eredu berezi bat gidatzea da, egungo jardunbidearekin alderatuta, alderdi hauek hobetu nahi ditu: gazteek autonomia garatu dezatela ahalbidetzen duten testuinguruak sortzeko gaitasuna, norbanakoen premietara egokitzeko malgutasuna, trantsizio horretan arretaren jarraipenari bere horretan eustea, komunitatean duen hedapena hobetzea (gaztea komunitate-ingurune jakin batekin konektatzea, harekin dituen loturak indartuz) eta, aldi berean, ekonomikoki iraunkorragoa izatea.

Eremua:

Etorkizuna Eraikiz. Gipuzkoako Foru Aldundia.

landalab

Landalab gizarte arloko esku-hartze goiztiarrerako baliabide komunitarioak koordinatzen dituen proiektu pilotu bat da, eta irtenbide berritzaile eta praktikoak eskaini nahi ditu, baliabide teknologikoak eta landa-eremuko baliabide komunitarioen aprobetxamendua uztartuz.

Proiektu hau etorkizuneko erronka bat da landa-eremuan gizarte arloan esku hartzeko modelo berritzaile eta kostu-eraginkorren garapenean, irtenbide zehatzak, errealak eta eraldatzaileak jorratuz, ezagutza eta harreman-sare ukiezinak aktibatu eta, horrez gain, 2.0 analisiaren belaunaldi berria gehituz, horiek guztiak arreta arloko baliabideen zerbitzura jartzeko. Mendekotasun-arriskuan edo gizarte-bazterkeriaren arriskuan dauden adineko pertsonak bezalako kolektiboei zuzendutako irtenbideak eskaintzen ditu.

Eremua:
Etorkizuna Eraikiz. Gipuzkoako Foru Aldundia.

6 konpromisoa gizartearekin



konpromisoa ingurunearekin eta sektorearekin

Agintzarik bere eginkizunen barruan aitortua du gizarte-ekimeneko kooperatiba bat dela, eta gizartearekin konprometituta dagoela gizarte-premiak lantzeko eta balio soziala sortzeko ahaleginean. Printzipio horiek gauzatzean kooperatibaren bi helburuak betetzen dira, eta gainera, Agintzariren egitura sendotzen dute: alde batetik, administrazio desberdinen eskakizunari erantzunez 40 zerbitzu publikotan baino gehiagotan Agintzariko pertsona profesionalek burutzen duten jarduera. Eta bestetik, gure nortasunarekin loturiko hiru alderditan, hots, Gizarte Ekonomian, Gizarte Ekintzan eta Gizarte Ekimenean lana eta militantzia batuz pertsona profesionalek egiten duten ekarpena.

Eta hiru dimentsio horien azpian topatzen dugu Agintzarik bere ingurunearekin eta Gizarte Ekintzaren Hirugarren Sektorearekin duen konpromisoaren balioa: Gizarte Esku-hartzeen jarduera, ekimen publikoak oraindik estali ez dituen edo partzialki bakarrik estali dituen eremuak hartzen dituela, eta horri hobeto ekiteko edo horren inpaktua neurtu dadila errazteko erreminta berritzaile batzuk erabiliz.

Hobekuntza teknikoa gure proiektuetan eta gure esku-hartzeetan, adituen ezagutza sortzea eta besteenganatzea, etengabeko heziketa eta erakundeekin ekimen berrien inguruko lankidetza-proposamenak gizarte-premia berriei erantzuteko. Halaber, programak erabiltzen dituztenak elkarrekin lotzen dituzten lankidetza-esperientzia txikiak, gure jarduera profesionalen inguruko gogoeta iraunkorra, Hirugarren Sektoreko sareetan parte hartzea, nazioarteko jarduerak eta harremanak eta beste erakunde batzuekin izandako lankidetzak. Horrez gain, lankidetza bidezko ekintzailetza-ekimenak eta abian jarritako gizarte-ekonomiako ekimen berri hauetan kudeaketa-ereduak hedatzea, lankidetza bidezko barne-praktikak eraikuntza partekatuaren bidez kudeatutako antolamendua ahalbidetzen dutela, gure baliabideen kudeaketa profesionalizatua eta gardena, konpromisoa enpleguarekin, gizarte-ekonomiako enplegua eta kalitateko enplegua sortzearekin, parte hartzen dugun gizarte-egitura sortzen laguntzea (erakunde gisa nahiz norbanako gisa, eta gainera, lana gehitzen dute), berdintasunarekin, euskararekin, iraunkortasunarekin...

sareetan parte hartzea

FICE Hezkuntza-komunitateen Nazioarteko Federazioa
Nazio Batuek eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak definitutako haurren eskubideen Hitzarmena erdiesteko eta ezartzeko ekintza globalak sustatzen ditugu.

Innobasque irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da, gizarte zibila, enpresak, eragile zientifiko-teknologikoak eta administrazioa uztartzen dituena, xede hauei begira:

- Elkarrekin Euskadirako nahi dugun etorkizunik onena eraikitzea.
- Euskal gizarte osoaren egungo nahiz etorkizuneko bizi-kalitatea hobetzea.

EAPN Euskadi

13 lurralde-sare eta nazio mailako 14 erakunde biltzen dituen estatu-sarearekin lotua dago.

Honako helburuak ditu:

- Pobreziaren aurkako borroka eta gizarte-bazterkeria Europar Batasunaren agenda politikoan barneratzea.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurkako ekintzen eraginkortasuna sustatzea eta areagotzea.
- Pobreziaren eta gizarte-bazterkeriaren aurka lan egiten duten jende eta taldeekin horren alde lan egitea.

REAS Euskadi

1997an sortutako sare bat da, eta pertsonen eta beren ingurunearen zerbitzura dagoen ekonomia bat sustatzen duten 65 enpresa eta gizarte-erakunde baino gehiago biltzen ditu.

Gizardatz

Bizkaiko Gizarte Ekimeneko eta Esku Hartzeko Entitateen Elkarteak Hirugarren Gizarte Sektoreko entitateak biltzen ditu, eta entitate hauek babesgabetasun- eta/edo bazterkeria-egoeran edo hori jasateko arrisku-egoeran dauden pertsonei arreta egiteko zerbitzu profesionalak, aisialdikoak eta denbora libreko heziketakoak nahiz gizarte-kultur animaziokoak biltzen dituzte.

Erkide

Lau eratako Euskadiko 1.000 Kooperatiba baino gehiago biltzen ditu: Lan Elkartua, Irakaskuntza, Kontsumoa eta Kreditua. Guztien artean 73.000 enplegu baino gehiago biltzen dituzte.

Olatukoop

OlatuKoop sarea enpresek, elkarteek, erakundeek eta kooperatibek osatzen dute, eta denek ekonomia eta enpresa munduaren eraldatzaile gisa jokatzen dute, komunitate gisa merkataritza-proiektuak diseinatuz, eredu honetako enpresa konbentzionalak baino askoz gehiago.

erakundeetako parte-hartzea

Hainbat batzordetako kide gara:

- Eusko Jaurlaritzako Haurren Batzorde Iraunkorra.
- Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua.
- Bizkaiko Foru Aldundiko Haurren Batzordea.
- Bilboko Udaleko Gizarte Ongizatearen Udal Kontseilua.
- Bilboko Udaleko Haurren Batzordea.
- Eusko Jaurlaritzako Immigrazio Foroa. Sektore honetako beste entitate batzuekin dugun lankidetza eta harremana lankidetza-eredu desberdinen bidez gauzatu da, esate baterako Bilbon edo Nafarroako Eguesibarrean garatutako proiektuen bidez.

lankidetza unibertsitateekin

- Lankidetza-proiektua IRSE elkartearekin, Zorrotzan, Basurtun, Otxarkoagan eta Santutxun gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzuak kudeatzeko.
- Lankidetza-proiektua Gaztelekurekin, Iralan eta Rekalden gizarte-hezkuntza arloan esku hartzeko zerbitzuak kudeatzeko.
- Lankidetza-proiektua Kale Dor Kayikorekin, Santutxu eta Otxarkoaga inguruetan Eskolako Absentismoaren Programa kudeatzeko.

- Intress
- Vasija
- FAIM
- EKIE
- EVNTF

- Kamira
- IRSE
- Gazteleku
- Kale Dor Kayiko
- Gaido
- Hezkuntza-plataforma

- Magale
- Ume alaiak
- Igaxes
- Gislan
- Zehar
- Lahar
- Emaus
- Peñascal
- Fiare
- Lantegi Batuak
- Zerainlab
- Lokarri